



UDAL BATZAR ARRUNTA
2015eko Urriaren 15a

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

BERTARATUTAKO HAUTATUAK:

Ioritz Imaz Baztarrika jn.

Montserrat Delgado Aguirre and.

Erkuden Murua Uribe-Etxebarria and.

Andoni Gomez Aldanondo jn.

Rufino Insausti Eciolaza jn.

Aitzol Mendizabal Malkorra jn.

Argoitz Urrestaratzu Lazkano jn.

Aloña Barandiaran Munduate and.

Aritz Ugarte Munduate jn.

Etorri ez direnak: Igor Ariztimuño Iparraguirre jn.
Aratz Urkia Telleria jn.

IDAZKARIA: Aitor Iñarra González Jn.

BATZARRA: Arrunta. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: Arratsaldeko 20:00tan. Amaiera:

GAI BERRI BAT ZERRENDAN SARTZEA: Alkate jaunak gai bat zerrendan sartzea proposatzen du: "Zepai inguruko *hirukiaren* urbanizazio eta aprobetxamendu irizpideak onartzea". Aritz Ugarte jauna eta Aloña Barandiaran andereak ez daude ados modu honetan gaia zerrendan sartzearekin. Deialdiarekin batera gaia hau egon balitz interesatuak plenora etorriko zirela argudiatzen dute. Alkate jaunak esaten du deialdia egiteko momentuan pasa zitzaiola gaia sartzea, eta bestalde irizpide hauek onartu ondoren interesatuei pertsonalki jakinaraziko zaiela erabakia (haiek eskatu bezala).



Eztabaidatu ondoren, udalbatzaren gehiengo absolutuz erabakitzen da gaia zerrendan sartzea. Horren kontra azaltzen dira ehBilduko zinegotzi bertaratuka: Ugarte, Barandiaran, eta Urrestarazu. Beste gainontzekoak alde azaltzen dira.

Hortaz gai zerrenda honela gelditzen da:

GAI-ZERRENDA

- 1.- Azken Batzarreko agiriaren onspena: 2015-07-23koa
- 2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea.
- 3.- Eguneko Zentroko eta etxez etxeko zerbitzuen pleguak onartzea.
- 4.- Alkate jaunaren dedikazioa.
- 5.- 2016. urterako taxien tarifak onartzea.
- 6.- Zepai inguruko *hirukiaren* urbanizazio soluzioa eta aprobetxamendu urbanistikoaren irizpideak onartzea.
- 7.- Batzordeetako informazio eta proposamenak.
- 8.- Galdera eta eskaerak.

GAIK

1.- Azken Batzarreko agiriaren onspena: 2015-07-23koa

Uztailaren 23an egindako Batzarreko Agiria irakurri ondoren, onartutzat ematen da aho-batez. Hala ere, Barandiaran andereak galdetzen du ea zergatik eman zen argitara web unean oraindik onartzeke zegoen akta. Idazkari jaunak bere hartzen du akats honen erantzukizuna, eta esaten du nahigabe gertatu zela hori eta etorkizunean bakarrik onartutako aktak publikatuko direla. Baita ere uda-kide guztiek ontzat ematen dute web orrian aktak bere osotasunean argitaratzea.

2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea.

Azken udalbatzatik hona emandako Alkatetza Ebazpenen zerrenda zinegotzi guztiei banatuak daudelarik (207-269 zenbakidunak), Udalbatza Osoko zinegotziak ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen dira.

3.- Eguneko Zentroko eta Etxez Etxeko laguntzarako kontratazioaren pleguak onartzea.

Idazkari jaunak azaltzen du pleguak Ongizate langilea eta berak prestatu dituela. Gaia 2015ko irailaren 15ean pasa zen ogasun batzordetik eta honek udalbatzari pleguak onartzea proposatu zion.



Gaia eztabaidatu ondoren, udalbatzak aho-batez honakoa

ERABAKITZEN DU

Lehena.

Eguneko zentro eta Etxez etxeko laguntza zerbitzuak kontratatzeko espedientea eta baldintza pleguak onartzea.

Bigarrena.

Espedientea aurrera eramateko hurrengo urratsak ematea, eta bereziki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia publikatzea.

4.- Alkate jaunaren dedikazioa.

Alkate jaunak azaltzen du irailaren 15an ospatutako ogasun batzordeak aho-batez proposatu ziola udalbatzari alkatearen dedikazioaren akats zuzenketa egitea, eta aldatu dadin %100tik %75era. Honek ahalbideratuko baitu, beste gauzen artean, konfiantzazko langile bat edukitzea, hain zuzen ere lehen sektoreko aholkularia.

Bere garaian zinegotzi guztiak ados agertu ziren, Bildukoak ere bai, honako aldaketa egiteko. Oraingoan, ordea, Barandiaran andereak uste du oraingoz horrela lotu daitekeela, baina hurrengo urterako gaia hobe jorratu eta beste modu garbiago batera egiteko konpromisoarekin.

Barandiaran andereak erantsi du Bilduko zinegotziek onartu zutenean konfindantzako persona bezela kontratatzea ez zen abisatu, eragozpenak egon zitezkeela. Eragozpen horiek gerora azaldu baitziren ogasun batzordean.

Hortaz, Bilduko taldeak proposatu du hurrengo urtetik aurrera beste modu batera egin beharko dela persona honen kontratazioa, alkatearen dedikazioa jetsi behar ez izateko. Bestalde uste dute akats zuzenketa ez zela egin behar, izan ere alkateak jornada osoan egiten baitu lan, eta horren arabera soldata du ere.



Alkate jauna agertzen du irtenbide hau guztiz legezkoa dela, eta aurretik aipatu den bezala modu garbia da hau ere; eta langile espezifiko hau kontratatzeke modurik errazena. Modu horretan egiteaz gain dagoen bidea zerbitzu hori emateko autonomo bezala kontratatzea litzateke, hau da bi modu horiek daudela azaltzen du alkateak. Eta eransten du agian gaur egun dagoen pertsonari autonomo izatea eskatuko baliote berak ez luke interesik izango lana egiten jarraitzeko.

EhBilduko beste bi zinegotzi bertaratuak ere, Ugarte eta Urrestarazu jaunek, Barandiaranen iritzi berdinekoak dira. Etorkizunean hoberena litzateke beste forma ematea lehen sektoreko langilearen kontratazioari. Zentzu horretan datorren urterako hausnarketa hori egin dadin eskatu diote alkateari.

Beste zinegotzi guztiak alkatearen proposamenaren alde agertzen dira, hau da alkatearen dedikazioan akats zuzenketa sartzearen aldekoak.

Hori guztia kontutan izanda eta gaia eztabaidatu ondoren, udalbatzak gehiengoz honakoa

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa.

Alkate jaunaren dedikazioa %75ekoa izan dadin eta dedikazio horrengatik urtean 40.000 euroko soldata eduki dezan.

Bigarrena.

Akats zuzenketa hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea.

5.- 2016. urterako taxien tarifak onartzea.

Ogasun Batzordeak 2015eko urriaren 6an ospatutako bileran Agitax-ek proposatutako taxien tarifak 2016. urterako aztertu ondoren udalbatzari proposatu zion onartzea. Tarifa hauek ez dute inongo igoerarik 2015. urtekoekin konparatuta.

Hori guztia kontutan izanda eta gaia eztabaidatu ondoren, udalbatzak aho-batez honakoa



ERABAKITZEN DU

Lehena.

Onartzea jarraian azaltzen den taxien tarifen taula 2016. urterako:

PROPUESTA TARIFA URBANA 2016					
2016ko HIRI BARUKO TARIFA PROPOSAMENA					
TARIFA 1*			TARIFA 2**		
Bajada de bandera	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Bajada de bandera	Kilómetro recorrido	Hora de espera
Abiasaria	Egindako Kilometroa	Itxaron Ordua	Abiasaria	Egindako Kilometroa	Itxaron Ordua
3,4588	1,0828	20,6819	3,4588	1,7269	32,5052

Bigarrena.

Erabaki hau Agitax enpresari jakinaraztea.

6.- Zepai inguruko hirukiaren urbanizazio soluzioa eta aprobetxamendu urbanistikoaren irizpideak onartzea.

Alkate jaunak azaltzen du gai hau hilabeteak daramala hirigintza batzordetan debatitua izaten. Partzela hau gaur egun lur ez urbanizatzaile bezala azaltzen da, eta eskari bat egon da plan berrian urbano bezala agertzeko. Hirigintza batzordearen ustez zentzuzkoa da kalifikazioa aldatzeak, baina desadostasunak agertu dira bertan egin beharreko urbanizazio lanei dagokionez.

Lurjabeek proposamen bat egin dute non aparkalekuak partzelaren alde batean jartzen diren eta bi familia-bakarreko-etxebizitza proposatzen diren. Hirigintza batzordean dauden kideen artean ez dago adostasuna aparkalekuak non kokatu beharko liratekeen. Alkate jaunak, eta beste zinegotzi batzuk, proposatu dute aparkalekuak errepideari jarraituta "linean" joan behar dutela, eta ez lurjabeek proposatzen duten bezala. Puntu horretan sortu da desadostasun handiena.



Aritz Ugarte jauna ez dago ados planteamendu horrekin. Uste du aparkalekuak pribatuek planteatu duten bezala ondo daudela. Bestalde Aloña Barandiaran andereak adierazi du informazio gehiago beharko lukeela, eta bestalde berriz ere aldarrikatu du puntu hau gai zerrendan jarrita egon balitz interesatuak etorriko zirela honi buruz entzuteko.

Alkate jaunak azaltzen du ere gau honen inguruan erabaki bat hartzearen beharra interesatuek hala eskatu dutelako dela. Hau da, honako irizpidea berez plan orokorra onartzen denean jasoko da, baina alde zuzenetik interesatuek udalak zer zentzutan hartuko duen erabakiaren eskaria egin dute. Horregatik plenoak erabakia hartu beharrean dago.

Gaia luze eztabaidatu ondoren bozkatu da. Alkateak proposatutako irizpidea bertaratutako sei zinegotzik babestu dute, aldiz abstenitu dira gai horretan beste hiru (Ugarte, Barandiaran eta Urrestaratzu).

Hala eta guztiz ere Idazkariak azaldu du honako erabakiak ez dituela berehalako efektu juridikoak, izan ere irizpide horiek plan orokorrean jaso beharko baitira.

Modu horretan udalbatzak gehiengoz honakoa

ERABAKITZEN DU

Bakarra.

Ontzat ematea udal arkitekto aholkulariek proposatutako urbanizazio irizpideak "hirukia" delako partzelan, Zepai inguruan. Aparkalekuak errepideari jarraituz ezarriko dira "linean" eta espaloiak 3 metrokoa izan behar badu ere zabalera hori baino gutxiago izatea onar dezake udalak (2,20 ingurukoa).

7.- Batzordeetako informazio eta proposamenak.

7.1 Udal langileekin bilera:

Alkate jauna udal langileen ordezkariekin elkartu zela azaldu du, eta hauek zinegotziekin biltzeko eskaria luzatu dutela adierazi du. Bilera horretan hiru gai nabari



azaldu ziren: IPC + %2ko igoera soldatan 2016. urterako, langileen nibelak aztertzea, eta enpresen bidez zerbitzuak ematearen tendentziarekin kezka.

Zinegotziek elkartzeko datei buruz hitz egiten dute denentzako egokia izango den data lortzeko. Beraien artean harremanetan egoteko konpromisoa hartu dute data finkatzeko.

7.2 Sasieta mankomunitateko kostuaren igoera:

Alkate jaunak azaldu du Sasietako zabor mankomunitatean 2016. urterako igoera nabariak sortuko direla. Horiei aurre egiteko udalak agian bere gain hartu beharko du igoera horren parte bat edo dena. Gaia Ogasun batzordean sakonki azertu beharko dela azaltzen du. Zinegotzi guztiek honen berri jaso dute.

7.3 Ondramuño inguruko obra:

Alkate jaunak informazio eman du gai honi buruz. Ondramuño baserri inguruan egiten ari den obra dela eta, bizilagunak kezkatuak azaldu dira. Bilera batzuk eskatu dituzte udalarekin eta baita ere beraien artean bildu dira. Txosten tekniko bat ere eskatu diote teknikari bati. Alkate jauna bizilagunekin elkartu zen lehengo astean, eta irtenbide bezala proposatu zuen datorren astean denak berriz elkartzea teknikariek batera gauzak argitzeko. Zinegotziek honen berri jaso dute.

Bestalde, eta gai honen inguruan, Aritz Ugarte jaunak galdetu du berak idatziz egindako eskaria noiz erantzungo duen alkateak. Honek erantzun dio hoberena dela informazio hori guztia berak zuzenean hartzea. Espedientea idazkaritzan dago eta nahi bezala azertu dezake.

8.- Galdera eta eskaerak.

11.1 Lorezaintzako zerbitzua:

Aritz Ugarte jaunak gai hau nola dagoen galdetu du eta alkate jaunak azaldu du horretan lan egiten ari dela.

11.2 Kultura arloko hainbat gastuen informazio eskaria:



Aloña Barandiaran andereak ardura azaldu du kultura arloan egin diren hainbat gastuen inguruan, bereziki Silvia Iriondoren kontzertua eman zenekoa. Alkate jaunak azalpenak eman ditu.

11.3 *Pilarreneako* tabernaren kudeaketa:

Aloña Barandiaran andereak honi buruz galdetu du. Alkate eta Idazkari jaunek honen inguruko informazioa eman dute. Azaldu dute hainbat arlotan gauzak behar diren bezala ez direla egiten ari kontratistaren aldetik eta hori dela eta aurrerago gaia aztertu eta neurriak hartu beharko direla.

Eta beste gairik ez dagoenez Batzarra bukatutzat ematen da gaueko 22:30ak direnean.